

FRUIZBARRI

Fruizko barriak
Euskara Zerbitzua
Fruizko Udala
2012ko apirila
41. zk.

FRUIZBARRI

Fruizbarriren zenbaki honetan udalerrian egindako ekintza bi ekarri gura izan jatzuez, besteak beste: "Liburutegia altxorrez beterik" eta "Santa Ageda".

Herrian errotuta eta harrera eta parte hartze ona euki daben ekintza bi dira.

Biak be gure herrian alkarlanerako eta parte hartzeko dagoan indarraren erakusgarri. Aurrera Fruiz!

Holantxe jarraitu !



SANTA AGEDA

Zezeilaren 4an arratsaldeko 16:00retan Fruizko plazan hasi eta gogotsu ekin eutsien, beste urte batez, fruitzarrek Santa Ageda abesteari. Lehenengo

kantaldiak motorrak martxan jartzeko eta ahotsei neurria hartzeko balio izan eutsien; eta, horren ostean, ELEIZALDE, LARRAKOALDE, PLAKONE, UGANE, BOTIOLA, LOTINE, BATIZ, ANDEKO, ABIO, MANDALUIZ, LEKERIKE auzoetan ibili ziran, harik eta, 19:30ak aldera, plazan azken abestia kantatu eben arte.

Baina eguna ez zan azken abesti haregaz amaitu. Izan be, "Lurbarri" eraikinean santa eskean ibilitako guztiek "Fruna" alkartekoen prestatutako merienda eder-ederra eukien zain. Herriko nagusiek jo eta ke ibili ziran beharrean bertan egozan guztiak ondo baino hobeto atendituta egon zeitezan. Han entzun izan zan moduan: *"Handia da gero! Nagusiak lan eta lan eta gu hemen jan eta jan"*

Sasoia batean kintoak (soldaduzkara joatekoak zirenak) ibiltzen ziran Santa Ageda bezperan baserriz baserri eskean. Gaur egun, herri guztiak hartzen dau parte eta helburu nagusia San Ageda abesten urtetako aspaldiko **ohiturea eta tradizioa mantentzea eta gordetzea** da. Hori holan izanda eta onartuta, batutako dirua urte bakoitzean herriko alkarte batentzat izatea dago erabagita. Era horretara, herritarrengandik jasotako dirua zelan edo halan barrero itzultzen da herrira eta herrira begirako ekimenetara. Aurten "Fruna" nagusien alkatearentzako izan da batutako dira.

ESKERRIK ASKO egun hori prestatzen, antolatzen eta aurrera ateratzen lagundu dozuen ahots eta esku guztioi !!!



FRUIZKO LIBURUTEGIA ALTXORREZ BETE-BETERIK



Aurreko urteetako arraskatea eta parte hartzea ikusita, joan dan urria-abenduan barriro gauzatu eban Fruizko Udalak "Liburutegia altxorrez beterik" izeneko ekimena.

Holan ba, herritarrak altxor bila ibili ziran urria eta zemendia bitartean udal liburutegian. Bila ibili ezeze aurkitu be egin ebezan makinatxo bat altxor.



Nagusien kategorian parte-hartzaile guztien artean **lagun birentzako afaria** zozketatu zan.

Saria Pablo Brogerasek eroan neban. **ZORIONAK !!**











Gainerako kategorietan, parte-hartzaile guztiek jaso eben saritxoa.

ZORIONAK ZUEI BE !!



Hemen dozuez, Fruizko liburutegian altxor-bilatzaile beharretan ibili ondoren, gure herritarrek irakurtzeko gomendatzen deuskuezan "harri-bitxieta" batzuk:





Kamera toia

Euskal Herriko
Ikus-entzunezkoen
Rallya

Gernika-Lumon, Maiatzaren 12tik 26ra
Izen-ematea apirilaren 27rarte zabalik

www.kameratoia.com



OINARRIAK

- Euskal Herriko gazte euskaldunek parte hartu ahal izango dabe.
- **Parte-hartzaileak 18 eta 35 urte bitarteko gazteak** izango dira.
- Rallya, gitxienez 3 eta gehienez 8 minutuko ikus-entzunezko lana sortzean datza.
- Gaia eta ezaugarriak zeintzuk izango diran maiatzaren 12an adierazoko da.
- Hizkuntzaren presentzia ezinbestekoa da, ahozkoa edo idatzizkoa **euskara hutsean**.
- Ikus-entzunezkoetan gitxienez herri bakoitzeko ezaugarri bana islatu beharko da lehiaketa egunean grabatuta.
- Gazteek lana hasteko beharrezko dan ekipoa ekarri beharko dabe, antolakuntzak egokitutako espazioan mahai eta aulkiak besterik ez da egongo. Topagunea ez da ekipoen galera edo ezbeharren erantzule egingo.
- **Maiatzaren 17an** eguerdiko **12:00ak baino lehen**, ikus-entzunezko lanak AVI edo MOV formatuan bidali beharko dira DVD batean (Topaguneak Abadiñon duen egoitzara), edo interneteko transferentzia bidez amaia@topagunea.org helbidera. Bi kasuetan, artxiboak egoera onean jaso dirala baieztatuko dau antolakuntzak eta arazorik balego lanak alde batera uzteko eskumena izango dau.
- Kamera toian ekoiztutako lan guztiak **Creative Commons AITORTU-PARTEKATU** lizentziarekin zabalduko dira. Horren arabera, egileek baimena emoten dabe euren lana edozeinek ikusi, **erakutsi edota berrerabiltzeko**, beti be **egiletza aitortuz eta eratorritako lanak baldintza berdinetan partekatuz**. Informazio gehiagorako, ikus: <http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>.
- Antolakuntzak, beharrezko jotzen dituen aldaketak egiteko eskubidea dauko.
- Arazo edo zalantzarik egon ezker antolakuntzak erabagitzeko ahalmena eukiko dau.
- Lehiaketan izena emateko azken eguna **apirilaren 27a** izango da.

SARIAK

1. 1.500 eurokoa
2. 1.200 eurokoa
3. 900 eurokoa

* Antolakuntzak hala erabagi ezker, sariak hutsik gera daitezke.

* Saria jasotzeko ezinbestekoa izango da **maiatzaren 26ko ekitaldian** parte hartzea

Informazio gehiagorako: www.kameratoia.com / amaia@topagunea.com edo 946215968 (Amaia).



Kamera toia

Euskal Herriko
Ikus-entzunezkoen
Rallya

Gernika-Lumon, Maiatzaren 12tik 26ra
Izen-ematea apirilaren 27rarte zabalik

www.kameratoia.com

